



## 2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

# A eredua

1. ABIZENA \_\_\_\_\_

2. ABIZENA \_\_\_\_\_

IZENA \_\_\_\_\_

NORTASUN-AGIRIA \_\_\_\_\_

LANTOKIA \_\_\_\_\_

KATEGORIA \_\_\_\_\_

AZTERKETA-EGUNA \_\_\_\_\_

AZTERKETA-TOKIA \_\_\_\_\_



## ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak ariketa bi daukaz: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Ariketa bi honeek egiteko **ordubete eta 40 minutu** eukiko dozuz.
- Irakurri eizuz ariketa bakotxaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoaz egin behar dira. Ahalegindu zaitetz letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrietan idatzitakoa ez da zuzenduko.



## 1. IRAKURMENA

**Ariketa-motea:** CLOZE-TESTA

**Zelan egin:**

- Ondoren, 50 hutsuneko testu bat daukazu. Testuko zenbaki bakotzak berba bat kendu dala adierazoten dau.
  - Aukeratu erantzun egokiena aukeren orrian eta markatu **erantzun-orrian**.
  - Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtea gomendatzen deutsugu.
- Ariketa hau gainditzeko, gitxienez 30 egin behar dozuz ondo.

### MANIFESTAZINOAK PUTZITZEKO, KONTRATAU EIZUZ “ERETXIAREN MERZENARIOAK”

Emon daigun inguratzen gaituan zeozergaitik haserre gagozala eta protesta \_\_1\_\_ manifestazino edo konzentrazino bat \_\_2\_\_ gura dogula. Emon daigun, era berean, gure kausak \_\_3\_\_ asko ez daukazala eta ahalegin handia egin beharko dogula manifestazinoa desastre hutsa ez \_\_4\_\_. Eta emon daigun, holan be, \_\_5\_\_ lortuko dogula jente-kopuru duin bat \_\_6\_\_. Bada, antza danez, arazo horixe daukie Alemaniako hainbat \_\_7\_\_.

Alemaniako herritarrak era askotako arazoen \_\_8\_\_ kaleratzen dira: energia nuklearraren aurka, igongailuetako musikearen aurka, txakurrek edozein \_\_9\_\_ kaka egiteko daukien eskubidearen alde... Protesta bereziak izan \_\_10\_\_ dira, gainera: aktibismoa, arte konzeptuala eta kale-antzerkia nahastu egiten ditue manifestazinoetan. \_\_11\_\_, badirudi gero eta \_\_12\_\_ dala jentea zeozeren kontra edo alde manifestau \_\_13\_\_ lortzea, herritarrek gurago dabelako \_\_14\_\_ telebisino aurrean edo familiagaz nasai-nasai pasau.

*Erento.com* enpresea be \_\_15\_\_ da egoereaz, eta txantxetako \_\_16\_\_ zerbitzu barria ipini dau bezeroen \_\_17\_\_: manifestari profesionalen alokairua. Enpresek era guztietako objektu eta lanbideak \_\_18\_\_ ditu alokairuan: *Ferrari* autoak, lujozko etxeak, sukaldariak, *strip-tease* dantzariak... eta, joan dan \_\_19\_\_ aurrera, baita manifestariak be. Aurrerantzean, \_\_20\_\_, mobilizazinoen antolatzaileek tresna barria daukie manifestari \_\_21\_\_ aurre egiteko.



*Erento.com* enpresea \_\_22\_\_ berezia osotzen dabil eta \_\_23\_\_ 300 ikasle, lanbako eta agure inguruk osotzen dabe. Prest dagoz edozein koloretako manifestazinoetan parte hartzeko 125 euroren \_\_24\_\_. Gai dira mobilizazinoetara joan eta eskatzen \_\_25\_\_ leloak oihukatzeke edo pankartea eskuan hartu eta giza kateetan parte hartzeko; baina, dinoenez, \_\_26\_\_ be egingo leukiez: xenofobia edo errazismoa babesten daben manifestazinoetan ez \_\_27\_\_ sekula parte hartuko.

“Eretxiaren merzenario” \_\_28\_\_ dituen herritar horreen zerbitzuak kontratau gura dituanak, neurrira moldatutako manifestariak alogadu \_\_29\_\_: gazteak, adinekoak, manifestazinoaren lehenengo \_\_30\_\_ paretako prest dagozanak, modu zehatz baten \_\_31\_\_ agertuko diranak... Gainera, *attrezzo*a osotzeko beharrezko \_\_32\_\_ guztiak be alogadu leikez: pankartak, bozgorailuak, txistuak...; poliziak \_\_33\_\_, jakina.

*Erento.com*-eko arduradunek Alemaniako Medikuen Alkarteak egindako alkarretaratze bat izan dabe inspirazino-iturri. Izan be, igazko abenduan, Parlamentuaren aurrekaldean 200 lagun inguru batu ziran bata zuriz jantzita, eta horreetatik 50 bat \_\_34\_\_ ez ziran medikuak. \_\_35\_\_ kontratau egin ei zituen. Komunikabide alemaniarrek ekintza ha \_\_36\_\_ jo eben, demokraziarentzat \_\_37\_\_ zala esan eben. Medikuen alkarteko bozeroalearen esanetan, \_\_38\_\_, ez zan manifestazinoa izan, giza hartu-emon operazinoa \_\_39\_\_. Manifestariak giza katea osotu \_\_40\_\_ eben, prentseari eta telebisinoari \_\_41\_\_ publizidade-ekintza hatan.

Manifestariak alogatzea tresna baliagarria \_\_42\_\_ leiteke manifestazino “txukuna” antolatu gura dauanarentzat. Oraingoz 50 bezerok eskatu dabe zerbitzu barriari \_\_43\_\_ informazinoa. Halanda be, manifestari profesional bakotxak \_\_44\_\_ 10 eta 30 euro bitartean kobretan dauala kontuan hartuta, “merzenario” asko fitxau gura \_\_45\_\_ diru dezente gastau beharko dau.

Bada, ostera, diru-kontu horrek \_\_46\_\_ handirik ekarten ez deutsanik. Medikue alemaniarren giza katea ez da figurantez osotuta egin dan ekintza bakarra, \_\_47\_\_. Hainbat ekitalditan, telebisino-kameren begiradapean dagozan horreetan \_\_48\_\_, antolatzaileek itxura zehatz bateko personak kontratatetan ditue, pantailatan guztia polit-polita \_\_49\_\_ daiten. Goya Sarietan, esaterako, Madrilgo Kongresu Jauregiaren aurrekaldean \_\_50\_\_ zain egozan mila lagunetatik hirurehun galaren antolatzaileek kontratautako figuranteak ziran.

Jon Torner  
Argia, 2007-02-17  
Egokitua



### 1.1. AUKEREN ORRIA

- |  |  |   |   |
|--|--|---|---|
| 1. a) moduan<br>b) neurrian<br>c) bide<br>d) beharrear   | 2. a) deuseztatu<br>b) zapuztu<br>c) antolatu<br>d) galarazo     | 3. a) jarraigile<br>b) jarraizale<br>c) jarraidun<br>d) jarraitzaile  | 4. a) izatea<br>b) izateko<br>c) izaterako<br>d) izaten           |
| 5. a) nekez<br>b) arretaz<br>c) aise<br>d) ondorioz      | 6. a) batuta<br>b) batzea<br>c) batzerako<br>d) batu             | 7. a) kolektibo<br>b) kolektiboak<br>c) kolektiboek<br>d) kolektibok  | 8. a) buruz<br>b) aldean<br>c) aurrean<br>d) parean               |
| 9. a) lekuz<br>b) lekutan<br>c) lekuan<br>d) lekuetan    | 10. a) ohi<br>b) al<br>c) ete<br>d) egin                         | 11. a) Behinik behin<br>b) Bestela<br>c) Dana dala<br>d) Horrenbestez | 12. a) atseginagoa<br>b) errazagoa<br>c) erosoagoa<br>d) gatxagoa |
| 13. a) daian<br>b) deion<br>c) dakion<br>d) daiten       | 14. a) arnasbidea<br>b) baimena<br>c) astialdia<br>d) oporrak    | 15. a) jaubetu<br>b) hondoratu<br>c) aberastu<br>d) kezkatu           | 16. a) diharduan<br>b) dirudian<br>c) darabilen<br>d) dakartsen   |
| 17. a) zain<br>b) artean<br>c) hobekuntzan<br>d) eskura  | 18. a) hartzen<br>b) ordaintzen<br>c) irabazten<br>d) eskaintzen | 19. a) hiletik<br>b) hilez<br>c) hilean<br>d) hilaren                 | 20. a) beraz<br>b) gainerakoan<br>c) barriz<br>d) bestalde        |
| 21. a) askori<br>b) falteari<br>c) taldeei<br>d) guztioi | 22. a) lehiaketa<br>b) lan-boltsa<br>c) aldaketa<br>d) eskari    | 23. a) adibidez<br>b) baleiteke<br>c) oraingoz<br>d) zeozelan         | 24. a) arabera<br>b) ordez<br>c) truke<br>d) kontura              |



25. a) leitekezan  
b) leikiezan  
c) jakezan  
d) deutesiezan
26. a) larriagoak  
b) gustukoak  
c) ezustean  
d) salbuespenak
27. a) litxakiez  
b) leukie  
c) leikie  
d) litzatekez
28. a) izentau  
b) kanporatu  
c) babestu  
d) zerrendatu
29. a) leiteke  
b) leikioe  
c) leikez  
d) leiteke
30. a) ilaran  
b) hurrenkeran  
c) aldian  
d) aukeran
31. a) hautatuta  
b) jantzita  
c) isilarazota  
d) aitatuta
32. a) salgai  
b) jantzi  
c) premina  
d) osogai
33. a) barik  
b) izan ezik  
c) kanpo  
d) ezean
34. a) hutsik  
b) soilik  
c) bakarrik  
d) besterik
35. a) Gainerakoak  
b) Parlamentariak  
c) Medikiak  
d) Guztiak
36. a) lotsagarriarentzat  
b) lotsagarriatzat  
c) lotsagarritzat  
d) lotsagarrientzat
37. a) osasungarria  
b) sakontzea  
c) arriskutsua  
d) aukerea
38. a) ostera  
b) era berean  
c) bada  
d) baita be
39. a) hau da  
b) baino  
c) ezik  
d) alderantziz
40. a) uste  
b) ahal  
c) ezin  
d) behar
41. a) zuzendutako  
b) bialdutako  
c) debekautako  
d) jotako
42. a) berregin  
b) gertatu  
c) egon  
d) berreskuratu
43. a) esker  
b) begira  
c) bidez  
d) buruzko
44. a) orduz  
b) ordutako  
c) orduko  
d) orduan
45. a) deutsezanak  
b) deutesnak  
c) dituanak  
d) dituenak
46. a) irabazi  
b) buruhauste  
c) galera  
d) zerikusi
47. a) izango ez da, bada  
b) batek daki  
c) ezta gitxiago be  
d) bai horixe
48. a) batez be  
b) bigarrenik  
c) halanda guztiz be  
d) beharbada
49. a) erantzi  
b) ilundu  
c) begiratu  
d) agertu
50. a) aktoreei  
b) aktoreakana  
c) aktoreak  
d) aktoreen



## 2. IDAZMENA

**Egitekoa:** ESKUTITZA

**Oharrak:**

- Gitxienez 245 berba idatzi behar dozuz (35 bat lerro).
- Zaindu eskutitzaren egokitasuna, ulergarritasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.
- Ahalegindu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoaz idatzi behar dozu.

**GAIA:** Udalak etxe bat egiteko asmoa dauka zuen auzoan. Osasun-zentroa eta zahar-etxea ipiniko leukiez bertan eta holan ez zeunkie beste auzo batera joan beharko.

Horretarako, ostera, auzoko berdegune bakarra txikitu egin beharko leukie. Akabo, horko zugatzak, jolastokiak, jesarlekuak...

Askotan eskatu dozuez etxe barrian ipintekoak diran zerbitzuak, baina ez dozue parkea galdu gura. Idatzi eiozu alkateari auzotar guztion izenean eta arazoa azaltzeagaz batera egiozu proposamenen bat.

Oharra: Orri hau eta honen atzeko aldea zirriborroa egiteko erabili zeinkez. Zirriborroan dagoana ez da kontuan hartuko.

---

# ZIRRIBORROA



Z  
I  
R  
R  
I  
B  
O  
R  
R  
O  
A



5

10

15

20



25

30

35

40



45

50

55

60



1.2. ZUZENKETA-ORRIA — A eredua

**Irakurgaia:** "MANIFESTAZIOAK PUZTEKO, KONTRATA ITZAZU  
IRITZIAREN MERTZENARIOAK"

**Ariketa-mota:** CLOZE-TESTA

**Baremoa:** ariketa hau gainditzeko, 30 egin behar dira ondo.

**ERANTZUN ZUZENAK**

A eredua

1.	<b>A</b>	2.	<b>C</b>	3.	<b>D</b>	4.	<b>B</b>
5.	<b>A</b>	6.	<b>B</b>	7.	<b>D</b>	8.	<b>C</b>
9.	<b>B</b>	10.	<b>A</b>	11.	<b>C</b>	12.	<b>D</b>

13.	<b>D</b>	14.	<b>C</b>	15.	<b>A</b>	16.	<b>B</b>
17.	<b>D</b>	18.	<b>D</b>	19.	<b>A</b>	20.	<b>A</b>
21.	<b>B</b>	22.	<b>B</b>	23.	<b>C</b>	24.	<b>C</b>

25.	<b>C</b>	26.	<b>D</b>	27.	<b>B</b>	28.	<b>A</b>
29.	<b>C</b>	30.	<b>A</b>	31.	<b>B</b>	32.	<b>D</b>
33.	<b>B</b>	34.	<b>D</b>	35.	<b>A</b>	36.	<b>C</b>

37.	<b>C</b>	38.	<b>A</b>	39.	<b>B</b>	40.	<b>D</b>
41.	<b>A</b>	42.	<b>B</b>	43.	<b>D</b>	44.	<b>C</b>
45.	<b>C</b>	46.	<b>B</b>	47.	<b>C</b>	48.	<b>A</b>
49.	<b>D</b>	50.	<b>D</b>				